

KUTXABANK KREDITU TXARTELEN ISTRIPUEN DOAKO ASEGURU POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA

VISA DUAL K26, VISA DUAL K26+, VISA DUAL, VISA DUAL %100, VISA CLASSIC, VISA EXTRA, VISA GAZTE, VISA NAKAR/PARTAIDE, VISA TITANIO, MASTERCARD URDINA, VISA/MASTERCARD R.SOCIEDAD, VISA/MASTERCARD BBK eta MASTERCARD VIT

Zerbitzu honetarako, KUTXABANK SAK Chubb Insurance Company of Europe S/Rekin kontratatutako 64811182 zenbakiko polizaren baldintza orokor eta partikularrekin bat etorritza jaulki da.

- **Aseguruaren helburua:** Bidaiariak garraiatzeko baimendutako garraio publikoaren bidez egindako bidaiari gertatutako istripuak, betiere hauen zenbatekoa Kutxabankeko zorduntzeko txartelaren edo kreditu-txartelaren bidez ordaindu bada.

Horregatik istripuztat hartuko da jatorriz indarkeriazkoa den bat-bateko gorputz-lesioa edo heriotza, betiere aseguruaren asmoa izan ez denean.

- **Aseguratutako Kolektiboa:**

Lehenengoa: KUTXABANK S/AREN kreditu-txartelaren titular fisikoa. Txartela honako hauetako bat izan behar da:

VISA DUAL K26, VISA DUAL K26+, VISA DUAL, VISA DUAL %100, VISA CLASSIC, VISA EXTRA, VISA GAZTE, VISA NAKAR/PARTAIDE, VISA TITANIO, MASTERCARD URDINA, VISA/MASTERCARD R.SOCIEDAD, VISA/MASTERCARD BBK eta MASTERCARD VIT

Gainera aurretik aipatu ez den beste edozein pertsona ere estalita egongo da bidaiariak garraiatzeko baimena duen garraio publiko batean bidaiatzen duenean, soilik, billetea aurretik aipatutako KUTXABANK txartelen Titular batek ordaindu duenean, honako muga honekin: **aseguruaren estaldura txartelaren titularrari eta beste bederatzita pertsona gehiagori mugatuta egongo da.**

Bigarrena: Kutxabanken txartelen Titularrek istripuak estalita izango dituzte munduko edozein lekutan 24 orduz, bai jarduera profesionalean zein bizitzako egunerokotasunetatik kanpo dauden jardueretan gertatutako istripuetan ere. Garraio arruntetan eta kirola modu ez profesionalean egitean gertatzen direnak ere barne hartuko ditu, eskusiboen atalean beren beregi baztertutakoak izan ezik.

- **Onuradunak:** Kontratututako prestazioaren eskubidea duen pertsona titularra. Kontratututako prestazioaren eskubidearen titularra Aseguratuak izango da, heriotza kasuan izan ezik. Aseguratuak onuraduna beren beregi aukeratzeko ez badu, Heriotzagatik kalte-ordaina lehenetsun eta baztertze ordenan egingo da Aseguratuari dagokionez honako hauek direnean:

- Ezkontidea, betiere legalki edo egitatez bananduta ez badaude.
- Seme-alabak zati berdinetan. Baten bat hil bada, bere seme-alabek jasoko dute eta ez izatekotan, bizirik dauden Aseguratuaren seme-alaben artean bananduko da.

•Gurasoak.

Aitona-amonak.

•Neba-arrebak

Aurreko guzti hauek egonik ezean, hildako Aseguratuaren oinordeko legalek jasoko dute.

- **Bermeak eta Kapitalak:**

Aseguratutako Kolektiboaren lehenengo atalean adierazten diren pertsonentzako:

. Garraio publikoan gertatutako istripu baten ondorioz aseguratua hilko balitz edo baliaezintasun absolutu eta iraunkorra izango balu, Aseguruak HIRUREHUN MILA EURO (300.000 €) ordainduko dio. Aseguratuaren heriotza ekarri duen istripuaren ondorioz Aseguratuak Baliaezintasun Iraunkorragatik egindako ordainketak kalte-ordainketan zordunduko dira, hau handiagoa bada.

KUTXABANK KREDITU TXARTELEN ISTRIPUEN DOAKO ASEGURU POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA

VISA DUAL K26, VISA DUAL K26+, VISA DUAL, VISA DUAL %100, VISA CLASSIC, VISA EXTRA, VISA GAZTE, VISA NAKAR/PARTAIDE, VISA TITANIO, MASTERCARD URDINA, VISA/MASTERCARD R.SOCIEDAD, VISA/MASTERCARD BBK eta MASTERCARD VIT

. Bidaiariak edo pertsonak garraiatzeko ibilgailu baten (**motozikletak kenduta**) gidari izatean ere gertatzen diren istripuak estalita egongo dira. **Estaldura honek European, Estatu Batuetan eta Kanadan gertatzen diren istripuentzako baino ez du balio, beraz, kanpo geratzen dira munduko beste tokietan gertatzen direnak.** Aseguruak estalitako alokatutako ibilgailuetan bidaiari doazen auto-stop egileak ez dira barne hartuko.

Asegurudunaren adina 14 urte baino gutxiago denean prestazioa Hileta Gastuen kalte-ordainengatik ordeztuko da eta Heriotza kasuan, polizan aipatutako zenbatekoaz ordainduko da, gehienez SEI MILA EUROko (6.000 €) zenbatekoarekin.

.Garraio publikoan gertatutako istripuaren ondorioz baliaezintasun funtzional atzeraezina ematen bada, Asegurazaileak Onuradunari aseguratutako kopuruari dagokion ehuneko ordainduko dio. **Baliaezintasun-mailak ez du zuzeneko erlaziorik Gizarte Segurantzak Baliaezintasun edo Ezgaitasun Iraunkorreko gertakizunetarako aurreikusitako hainbat kalifikazioekin.** Baliaezintasun iraunkorreko egoera bakoitzari baliaezintasun-maila bat dagokio. Hauek polizaren Baldintza Partikular eta Orokorretan adierazita dagoen aurreikusitako Baremoan zehazten dira. **Kalte-ordainen gehienezko maila Baremoaren %100 izango da.**

Heriotza istripua gertatu zenetik 18 hilabeteko epean gertatu beharko da, eta aldiz, Baliaezintasun Iraunkorra istripua gertatu zenetik 24 hilabeteko epean.

.Aseguratutako pertsonak garraiatzen duen autoa bahitzen badute, pertsona bakoitzeko sei mila eurotara arteko (6.000€) kalte-ordainketa egingo da gastu justifikatu legez. Klausula hau garraio publiko kolektiboan bidaiatzean gertatutako Istripuen arriskuan baino ezin izango da aplikatu.

Garraio publikoko tiketaren ordainketa partziala izan bada, kalte-ordaina txartelaren bidez ordaindutako kopuruaren proportziozkoaren araberakoa izango da.

Aseguratutako Kolektiboaren bigarren atalean adierazten diren Aseguratutako pertsonentzako: Istripu baten eraginez heriotza edo baliaezintasun iraunkor eta absolutua gertatuko bada, Asegurazaileak Onuradunari istripua gertatu zenetik hurrengo hamabi hilabetetan txartelaren bidez egindako erosketen zenbatekoa ordainduko dio gehienezko muga hamabost mila eurokoa (15.000 €) izanik.

Asegurazaileak gainera Onuradunari istripuaren egunean erosketengatik Txartelaren burutu gabe dagoen diruaren zenbateko bera ordainduko dio. Zenbateko hau gehienez sei mila eurokoa (6.000 €) izango da.

- **Adin-muga:** Ez dago adin-mugarik Aseguratu Kolektiboaren lehengo atalean dauden aseguratutako pertsonentzat. Hala ere, 14 urte baino gazteagoentzat eta 75 baino nagusiagoentzat sei mila euroko (6.000€) kalte-ordainketa egongo da ehorzketa gastuengatik.

Asegurua automatikoki ezeztatuko da Aseguratutako Kolektiboaren bigarren atalean dauden Aseguratuek 75 urte betetzen dituztenean.

- **Esklusioak:** KUTXABANKek harpidetutako aseguruaren polizaren hirugarren artikuluan (3.) jasotzen dira. Istripu berak ez du eskubiderik ematen Heriotza eta Baliaezintasun Iraunkorreko kalte-ordainetarako. **Txartelaren bidez ordaindutako bidaiei dagokien poliza-estaldurarentzat, aseguruak garraioaren egiaztatzean agertzea ezinbestekoa da, eramailearen tituluak aldiz, ez dira baliagarriak izango.** Azken hauek baliagarriak izango dira bidaia nagusiaren osagarriak direnean.

Asegurazaileak ez ditu sortutako ondorioak estaliko, besteak beste honako hauengatik:

- Aseguratuak nahita egindakoak edo aseguru hau indarrean sartu baino lehenekoak.
- Aseguratuak era profesionalean kirolen bat egiterakoan hiltzen bada..
- Honako hauen ondoriozko kalteak: sinkopeak, kardiopatiak, miokardio-infartua, garun-infartua edo garuneko isuria, apoplexia-atakea edo epilepsiformeak, honako hauengatik edo beste gaixotasunengatik lesioak.

KUTXABANK KREDITU TXARTELEN ISTRIPUEN DOAKO ASEGURU POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA

VISA DUAL K26, VISA DUAL K26+, VISA DUAL, VISA DUAL %100, VISA CLASSIC, VISA EXTRA, VISA GAZTE, VISA NAKAR/PARTAIDE, VISA TITANIO, MASTERCARD URDINA, VISA/MASTERCARD R.SOCIEDAD, VISA/MASTERCARD BBK eta MASTERCARD VIT

- Estalita ez dauden gertaerengatiko interbentzio-kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondoriozko lesioak
- Aseguratuak estalitako gertaera baten ondoriozko kongestioak, intsolazioak, izozketak eta tenperaturak edo presio atmosferikoak eragiten dituen beste efektuak, zein zer edo zer jateagatiko intoxikazioagatik.
- Gidabaimenik gabe bai gidari bai bidaiari gisa eragindako istripuak honako hauek gidatzeagatik: 125 zentimetro kubikoko motozikletak edo ziklomotoreak, eta motor, lurreko, aireko edo itsasoko ibilgailuak
- Aseguratuari bat-batean gertatutako honako egoerengatik: zoratzea, lo-ibiltzea, bere buruaz beste egitea edo saiatzea, mozkor egotea edo drogak edo sustantzia psikotropikoak zein sorgogorriak hartzea eta medikuak errezetatu ez dituen botikak hartzea.
- Honako hauen ondorioak betiere bere burua defendatzeko edo pertsonak zein ondasunak salbatzeko ez denean: delituak, zuhurtziagabekeri ausartak edo Aseguratuak erru larria izatea, erronka, apustu, liskarrak eta borrokak.

- Asegurudunarentzako informazioa

Aseguruaren hartzaileak kontratu hori egin baino lehen, honako informazioa jaso du aseguru pribatuaren antolamendu eta ikuskaritzari buruzko legearen 60. artikuluan eta 104.etik 107. arteko artikuluetan ezarritakoa betearazteko.

- Polizaren aseguratzailea CHUBB Insurance Company of Europe SE da. Bere helbide soziala honako hau da: Serrano, 57 Madril. Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioaren Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiari dagokio bere jardura kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Kontratuari ezarri beharreko legeria Espainiakoa da, zehatz-mehatz, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea.
- Hartzaileak edo asegurudunak, aseguratzailearekin auzitan egonez gero, bitartekariarengana eta justiziako epaitegi arruntetara jo dezakete.

“Konpainiari kexak edota erreklamazioak helarazteko, CHUBBen Bezeroaren Atentziorako Zerbitzua dauka (Serrano, 57 28006 – Madril, telefonoa: 91.308.34.68). Bertan asegurudunek jarritako kexak eta erreklamazioak atenditu eta konpondu daitezke, betiere haien interesei zein legez onartutako interesei lotuta baldin badaude. Kexak eta erreklamazioak aurkeztu zirenetik gehienez bi hilabeteko epean atendituta eta onartuta egon behar dira.”

Bezeroari Atentziora emateko Zerbitzuaren ebazpenarekin ez bazaude, edo erantzunik jaso gabe, bi hilabete baino gehiago igaro badira, erreklamazio-jartzaileak Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiko Aseguruduna Babesteko Batzordera jo ahal izango du. Hona hemen bere kontaktua: Paseo de la Castellana, 44 28046 – Madril, telefonoa: 902.197.936, faxa: 91.339.71.13). 91.339.71.13).

**KUTXABANK KREDITU TXARTELEN ISTRIPUEN DOAKO ASEGURU POLIZAREN
BALDINTZEN LABURPENA**
**VISA DUAL K26, VISA DUAL K26+, VISA DUAL, VISA DUAL %100, VISA CLASSIC, VISA
EXTRA, VISA GAZTE, VISA NAKAR/PARTAIDE, VISA TITANIO, MASTERCARD URDINA,
VISA/MASTERCARD R.SOCIEDAD, VISA/MASTERCARD BBK eta MASTERCARD VIT**

Istripua egonez gero eduki behar den dokumentazioa

- Heriotza kasuan

- . Heriotza-ziurtagiria
- . Hildakoaren eta onuradunen NANaren fotokopia konpultsatua
- . Onuradunen egoera eta nortasunaren egiaztatzeko dokumentazio (familia liburua, etab.)
- . Azken Borondateen Erregistroak egindako ziurtagiria eta azken testamenduaren kopia.
- . Istripua egiaztatzeko dokumentazioa (atestatuak, eginbide judizialak...).

- Baliaezintasun absolutua

- . Gizarte Segurantzak emandako baliaezintasun ebazpena
- . Kausa, hasiera, izaera eta lesioaren ondorioak azaltzen dituzten egiaztagiri medikuak.
- . Istripua egiaztatzeko dokumentazioa (atestatuak, eginbide judizialak, lan-istripu parteak ...).
- . Aseguratuaren NAN fotokopia konpultsatua.

Baita, kasu bietan Aseguratzailerak eskatzen duen dokumentazioa.

Dokumentazio hau zuzenean Konpainiara bidali daiteke. Aseguratzailera, Serrano 57-5º, 28006 Madril, erreferentzia-polizaren zenbakia adierazita.

Honako laburpena informatzeko besterik ez da eta edozein auzitarako, polizaren Baldintza Orokor eta Partikularretan ezarritakoa kontuan hartuko da. Aipatutako baldintzak hurrengo legeetan ezarritakoaren arabera araututa daude: Aseguruaren Kontratuari buruzko 50/1980 Legea, 6/2004 Errege Lege Dekretua, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzari buruzko Testu Bateratua onartzen duena, eta 2486/1998 Errege Dekretua, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzaren Araudia dakarrena.

Laburpen honek aurrekoak ordezkatzeko ditu eta indarrean egongo da Kutxabank SAren eta Chubb Insurance Company of Europe SE konpainiaren arteko polizak irauten duen bitartean. Kutxabankek Aseguruaren Hartzaile gisa diharduen poliza berritu ahal izango du, baina Konpainia Aseguratzaileri dagozkion betebeharrak ez ditu ez zuzenean ezta sorospidez ere bere gain hartuko. **Aseguratzailera.**



KUTXABANK KREDITU ETA ZORDUNKETA TXARTELEN BIDAIKO ASISTENTZIAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

Ondore hauetarako KUTXABANK SAK ARAG konpainiarekin kontratatutako 550759525 zenbakidun polizaren baldintza partikularrekin bat etorrira osatu dira honako baldintzak.

- **Aseguruaren helburua.** ARAGek Kutxabankeko kreditu-txartelaz ordaindutako bidaietan BIDAIKO ASISTENTZIA bermatzen du. Bermatutako bidaiak horiek bizitza partikularri edo laboralari lotutakoak izango dira, agiri honetan zehaztutako bermeen arabera.

- **Asegurudunak:** Espainian bizitokia edukitzeaz gain, Kutxabank S.A. kreditu- zein zordunketa-txartel baten titularra den pertsona fisikoa.
Halaber, aseguraturata egongo dira 9 lagun gehiagoko mugaraino.

- **Lurralde-eremua.** Poliza honetan azaldutako bermeek Espainian, Europan edo mundu osoan emango diren gertakizunetarako balio dute.

- **Denbora-muga.** Estalitako bermeek baliatzeko, Asegurudunak ohiko bizitokitik kanpo eman beharreko denbora ez da bidaiako edo desplazamenduko 90 egunetik gorakoa izango.

- **Estalitako bermeak.** Poliza honek babestutako istripurik gertatuz gero, ARAGek, bestek beste, honako zerbitzuak bermatuko ditu:

. **Asistentzia mediko-sanitaria.** ARAGek bere gain hartuko ditu gaixotutako zein zauritutako Aseguruduna atenditzeko behar diren profesionalen eta osasun-establezimenduen esku-harteari dagozkion gastuak, hurrengo mugak izanda: **6.000 euro Europan (Espainia barne) eta 9.000 euro Munduko gainerako lurraldeetan.**
Odontologiako gastuen muga, edonola ere, **100 eurorainokoa** edo balio bereko tokian tokiko diru-kopururainokoa da.

. **Zauritu edo gaixoen berraberritzea edo garraio sanitarioa.** Asegurudunak istripua edukiz gero edo bera bat-batean gaixotzen bada, ARAGek bere gain hartuko ditu klinika edo ospitale hurkoenera ambulanziaz lekualdatzeko gastuak, baita agindutako ospitalera zein ohiko bizitokira eramateari dagozkionak ere.

. **Hoteleko gaixondoa.** Gaixotutako edo zauritutako asegurudunak ezin badu etxera bueltatu agindu medikoa dela medio, ARAGek bere gain hartuko ditu hoteleko egonaldia luzatzeak dakartzan gastuak, gehienez 74 euro egunean, eta 10 eguneko epe batez.

. **Hildako Aseguruduna berraberritzea edo garraiatzea.** Aseguruduna hilez gero, ARAGek gorpua eramango du Espainian ehortziko duten lekuraino eta izapide horren gastuez arduratuko da.
Horren barruan ez dira egongo ehorzketa eta ospakizun horren gastuak eta ARAGek bere gain hartuko ditu gainerako Asegurudunak etxeratzeko gastuak, haiek hasieran aurreikusitako bitartekoak erabilia bidaiak egin ezin dutenean.

. **Senidea hiltzeagatik lehenago itzultzea.** Asegurudunetako edozeinek polizan sartutako senide bat hil delako bere bidaiak eten behar izanez gero, ARAG hura garraiatzeaz arduratuko da. Bidaiak joan-etorriko izango da, eta hegazkinez (turista-maila) edo trenaz (1. Maila) egingo da, gorpua dagoen lekutik Espainiako ehorzketa-lekuraino.

. **Ekipajearen lapurreta eta kalte materialak.** Asegurudunaren ekipajearen edo gauza pertsonaletan izandako kalte edo galera materialengatik kalte-ordaina bermatuta dago hurrengo kasuetan: lapurreta, garraiolaritaz dena edo horren zati bat galtzea, edo bidaiaren gertatutako sutearen zein erasoaren ondorioz izandako kalteak, **200 euroko mugaraino.**

Hurrengo gaiak ekipaje osoaren gainean aseguraturako zenbatekoaren %50raino barne hartzen ditu: kamerak eta argazkilaritzako, irratigintzako eta soinua edo irudia erregistratzeko osagarriak, ekipo elektronikoak eta bere osagarriak.

KUTXABANK KREDITU ETA ZORDUNKETA TXARTELEN BIDAIAKO ASISTENTZIAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

Kalte-ordaina garraio-enpresek emandakoaz gain emango da beti eta haien osagarria izango da. Horiek kobratzeko, garraio-enpresari dagokion kalte-ordaina kobratu izanaren ziurtagiria eta ekipajearen zerrenda nahiz bere balio estimatua aurkeztu beharko dira.

Berme honetatik kanpo geratzen dira ebasketa eta Asegurudunak behin behinekoz galtzea, hala nola hurrengo gauzak ere: bitxiak, dirua, agiriak, baliozko gauzak eta kirol nahiz informatikako materiala.

Lapurretarik izanez gero dagoen prestazioa kobratzeko, dagozkion agintarien aurrean aurretik salaketa aurkeztu behar da.

. **Ospitaleratutako Asegurudunaren etxebizitzan senideei eman beharreko laguntza.**

Asegurudunak bere bidaiaren barruan, gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz ospitalean geratu behar badu, eta ondo justifikatutako premiazko arrazoi larri batengatik, ohiko etxebizitzan pertsona bat egotea beharrezkoa balitz, ARAGek asegurdunak izendatutako pertsonaren joan-etorriko bidaia antolatuko du, hegazkinez (turista-maila) edo trenez (lehenengo maila), betiere Espainian bizi bada, Asegurudunaren etxera joan dadin. **Berme honek 120 euroko muga dauka.**

. **Gainerako Asegurudunen berraberritzea edo garraioa.** Gaixotasun edo istripuagatik Asegurudunetarikoa bat berraberritu edo lekualdatu denean, eta bere ezkontideek, lehenengo mailako aurrekoek edo ondorengoek, edo neba-arrebek hasieran aurreikusitako baliabideak erabilita bidaia jarraitu ezin dutenean, ARAGek haien etxera edo ospitalera eramandako asegurduna dagoen lekura eramango ditu.

. **Adingabekoen edo desgaitasuna dutenen berraberritzea edo garraioa.**

Berraberritu edo lekualdatutako Asegurudunak hamabost urte baino gutxiago edo desgaitasun psikikoa zein fisikoa duten pertsonekin bakarrik bidaiatzen bada, ARAGek azafata baten edo Asegurudunak izendatutako pertsonaren joan-etorriko bidaia antolatuko du, umeak edo ezintasuna dutenak etxerako bidean laguntzeko asmoz.

. **Senide bat bidaiatzea ospitaleratuz gero.** Asegurduna gaixo edo zaurituta baldin badago edo bost egunetik gorako epe batez ospitaleratuta egon behar badu, ARAGek Asegurudunaren senide baten edo berak izendatutakoaren esku joan-etorriko bidaia jarriko du, hegazkinez (turista-maila) edo trenez (1. maila) asegurdunarekin batera joan ahal izateko.

Atzerrian ospitaleratzen badute, ARAGek gainera, eguneko 74 euro ordainduko ditu, gehienez 10 eguneko epe batez, laguntzailearen egonaldiko gastuetarako eta dagozkion fakturak aurkeztearen truke.

. **Senide bat ospitaleratzeagatik aldeztu aurretik itzultzea.** Istripu edo gaixotasun larriaren ondorioz senide bat ospitaleratzeagatik Asegurudunetarikoa batek bere bidaia eten behar izanez gero, ARAG Espainiako ohiko bizilekura eramateaz arduratuko da, betiere ospitaleratutako pertsonak 5 egunetz gutxienez egon behar badu eta istripua edo gaixoaldia bidaiaren hasiera-dataren ondoren gertatu bada.

. **Asegurudunaren etxebizitzan edo lokal profesionalean istripu larria egoteagatik aldeztu aurretik itzultzea.** ARAGek Espainiako helbidera itzultzeko bidaia-txartela jarriko du Asegurudunaren esku, honek bidaia eten behar badu bere etxebizitza nagusian edo bigarrenen nahiz lokal profesionalean izandako kalte larriengatik (sutea, egindako lapurreta edo uholdea).

. **Galdutako ekipajeen bilatzea, aurkitzea eta bidaltzea.** Hegaldi erregular batean ekipajeak galtzen badira, ARAGek bere esku dituen baliabideak erabiliko ditu horiek aurkitu eta, hala badagokio, onuradunaren esku ipintzeko, berarentzat inolako kosturik eduki gabe.

. **Bidaian ahaztutako edo lapurtutako gauzak bidaltzea.** ARAGek bere gain hartuko du

KUTXABANK KREDITU ETA ZORDUNKETA TXARTELEN BIDAIKO ASISTENTZIAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

lapurtutako eta ondoren berreskuratutako gauzen nahiz, besterik gabe, ahaztutakoen bidalketa, **120 euroko mugaraino**, betiere gauza horien kostu bateratuak aipatutako zenbatekoa gainditzen badu.

. **Fakturaturutako ekipajearen entregaren atzerapena.** ARAGek **120 euroko mugaraino** bere gain hartuko du lehenengo mailako gauzen erosketaz, fakturaturutako ekipajearen entregan egondako 12 orduetik gorako atzerapenaren ondorioz egin denean. Kalte-ordain hau ezin zaio inolaz ere gehitu 3.7 artikularen ("Ekipajearen lapurreta eta kalte materialak") bermeagatik ematen den kalte-ordainari.

Atzerapena itzultzeko bidaian ematen bada, ekipajearen entrega heltzeko momentutik 48 ordu baino gehiago atzeratzen denean soilik estalita egongo da.

. **Atzerapena bidaiatzeko garraibidearen irteeran** ARAGek garraibidearen irteeran izandako atzerapenak eragindako gastuak ordainduko ditu, **30 euroko mugaraino**. Aipatutako atzerapena, gutxienez 6 ordukoa izan behar da. 6 orduetik gora, **beste 30 €, 180 euroko mugaraino**.

Gatazka sozialetan emandako balizkoak salbuetsita daude, esate baterako: grebak, enpresa-itxierak, manifestazioak, sabotajeak, askatasunez ibiltzeko ipinitako mugak, etab.

. **Atzerrian dirua aurreratzeko.** Asegurudunak hasieran aurreikusitako baliabideak erabilia (travel txekeak, kreditu-txartelak, bankuko transferentzia edo antzekoak) ezin badu dirurik lortu eta, horren ondorioz, bere bidaiari jarraitzerik ez badauka, ARAGek **1.500 eurorainoko zenbatekoa** aurreratuko du, betiere aurrerakin hori kobratzea bermatuko duen abala edo bermea ematen bazaio. Edonola ere, diru-kopuru horiek gehienez hogeita hamar eguneko epean itzuli behar dira.

. **Erantzukizun penalaren aurrean atzerrian babestea.** ARAGek Asegurudunaren erantzukizun penalaren aurreko babesa bermatzen du bizitza partikularren alorrean atzerriko epaitegietan irekitako auzietan eta aseguruaren xedea den bidaiagatik edo desplazamenduagatik ematen direnean. **Gastu eta Fidantzen gehieneko muga 3.000 eurokoa da.**

- **Esklusioak.** Hitzartutako bermeen barruan ez dira ondorengo gertakizunak hartzen:

- a) **Asegurudunak bere borondatez eragindako gertakizunak eta berak iruzurrez edo erru larritz jokatu duenean.**
- b) **Aurretik egondako min edo gaixotasun kronikoak eta haien ondorioak, betiere Asegurudunak bidaiari ekin baino pairatu baditu.**
- c) **Suizidioaren ondoriozko heriotza hala nola Asegurudunaren hurrengo ekintzek eragindako zauriak nahiz gaixotasunak ere: bere buruaz beste egiten saiatzea; berariaz bere buruaren kontra egitea; eta jarduera kriminala.**
- d) **Alkohola, psikotropikoak, haluzinogenoak edo beste droga batek zein antzeko ezaugarriak dituen sustantzia batek eragindako gaixotasunak edo egoera patologikoak.**
- e) **Tratamendu estetikoak eta audifonoak, lentillak, betaurrekoak, ortesiak eta, oro har, protesiak berriro ipintzea, baita erditzeak edo haurdunaldiak eta edonolako gaixotasun mentalek eragindako gastuak ere.**
- f) **Asegurudunak parte hartu duen hurrengo jardueretan eragindako lesioak edo gaixotasunak: kirol apustu, lehiaketa edo probak egitea; eskiaren eta neguko nahiz abenturako (mendi-ibiliak, trekkinga eta antzekoak) kirolen praktika; eta itsasoan, mendian edo basamortuan pertsonak erreskatatzea.**

KUTXABANK KREDITU ETA ZORDUNKETA TXARTELEN BIDAIKO ASISTENTZIAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

- g) Energia nuklearrak, izpi erradioaktiboek, hondamendi naturalek, gerrako ekintzek, liskarrek edo ekintza terroristek zuzenean edo zeharka eragindako balizkoak.**
- h) 9 euro baino gutxiagoko farmaziako edo medikuntzako gastuak.**

- Asegurudunarentzako informazioa:

Aseguruaren hartzaileak kontratu hori egin baino lehen, honako informazioa jaso du aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskaritzari buruzko legearen 60. artikuluan eta 104.etik 107. arteko artikuluetan ezarritakoa betearazteko.

- Polizaren aseguratzailea ARAG Compañía Internacional de Seguros y Reaseguros, SAU da. Helbide soziala: Carrer Roger de Flor, Bartzelona 16 Katalunia. Bere jardueraren kontrolaren eta ikuskaritzaren ardura Ekonomia eta Ogasuna Ministerioko Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritzarena da.
- Kontratuari ezarri beharreko legeria Espainiakoa da, zehatz-mehatz, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea.
- Hartzaileak edo asegurudunak, aseguratzailearekin auzitan egonez gero, bitartekariarengana eta justiziako epaitegi arruntetara jo dezakete.

“Konpainiari kexak edota erreklamazioak egiteko, ARAGek Bezeroari Atenditzeko Sailera. Roger de Flor, 16, 08018 – Bartzelona. Telefonoa: 902.367.185. Faxe: 93.300.18.66. E-posta: dac@arag.es. Webgunea: . Bertan atenditu eta konponduko dituzte, Legean onartutako interes eta eskubideei lotuta, asegurudunek aurkeztutako kexa eta erreklamazioak. Gainera, aurkeztu direnetik gehienez hilabete biko epean atenditu eta konponduko dituzte.

Aseguruduna babes juridikoaren alorreko istripu bat estaltzeari konpainiak emandako ezezkoarekin bat ez badator, Bezeroaren Babeslea izango da erreklamazioa ezagutzeko eskumena duen bakarra. Horretarako, erreklamazio-jartzaileak hurrengo helbide honetara idazkia zuzendu beharko du: 419 posta-kutxa, 08080 posta-kodea, Bartzelona. Bertan azalduko ditu erreklamazioaren arrazoiak eta Babesleak bere erantzuna gehienez hilabete biko epean eman beharko dio, aseguratzailearen aurreko erreklamazioa aurkeztu zen datatik zenbatuta.

Bezeroari Atentzioa emateko Zerbitzuaren ebazpenarekin ados ez bazaude, edo erantzunik ez baduzu jaso, edo hilabete bi baino gehiago igaro badira, erreklamazio-jartzaileak Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiko Aseguruduna Babesteko Batzordera jo ahal izango du. Hona hemen bere kontaktua: Paseo de la Castellana, 44. 28046 – Madril, telefonoa: 902.197.936, faxe: 91.339.71.13).”

KUTXABANK KREDITU ETA ZORDUNKETA TXARTELEN BIDAIKO ASISTENTZIAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

ERANTZUKIZUN ZIBIL PRIBATUKO ASEGURU OSAGARRIA

- **Erantzukizun zibil pribatua:** Aseguratzailleak **30.000 euroko mugaraino** bere gain hartuko ditu, Kode Zibilaren 1.902tik 1.910 arteko Artikuluen arabera, Asegurudunari eskatu ahal zaizkion diruzko kalte-ordainak. Estaldura bera egongo da, atzerriko legerietan aurreikusitako antzeko xedapenei jarraituz, beste inoren osotasun fisikoari, bere animaliei edo gauzei nahi gabe eragin diezazkiokeen kalte fisiko edo materialen erantzule zibil gisa Asegurudunari eskatu ahal zaizkion diru-kopuruetarako. Kasu bietan, gastu horiek ez dira erantzukizun zibilaren zehapen pertsonal edo osagarria izan behar. Muga honen barruan daude epaitegiko kostu eta tasak baita Asegurudunari eskatutako fidantza judizialen eraketa ere.

- **Asegurudunaren obligazioak.** Erantzukizun zibileko istripurik egotekotan, Asegurudunak edo bere eskubidedunek ez dute inolako erreklamaziorik onartu, negoziatu edo gaitzetsi behar Aseguratzailleak beren beregi emandako baimena jaso gabe.

- **Esklusioak.** Berme honek ez ditu hurrengo egoerak estaliko:

a) Motordun ibilgailuak, hegazkinak eta ontziak gidatzeagatik nahiz suzko armak erabiltzeagatik Asegurudunarenak izan daitezkeen edonolako erantzukizunak. Lanbide, sindikalgintza, politika edo elkarten alorreko edozein jardueraren ondoriozko Erantzukizun Zibila.

Epaitegiek eta edonolako agintariek ezarritako isunak edo zehapenak.

d) Kirol profesionalen eta hurrengo modalitate hauen praktikaren ondoriozko erantzukizuna, zaletu gisa baldin bada ere: alpinismoa, boxeoa, bobsleigha, espeleologia, judoa, paraxutismoa, delta-hegala, motorrik gabeko hegaldia, poloa, rugbya, jaurtiketa, yachtinga, arte martzialak, eta motordun ibilgailuek praktikaturakoak.

Asegurudunari edonola emandako gauzei eragindako kalteak.

BIDAIA ASISTENTZIAko eta ERANTZUKIZUN ZIBIL PRIBATUko estaldura emateko sistema

ARAG konpainiak antolatu eta atendituko du. Asegurudunek honako telefonoen bitartez zuzenean atendituko du:

- Espainiatik: 93 300 10 50
- Espainiatik kanpo: 00 34 93 300 10 50

Honako laburpena informatzeko besterik ez da eta edozein auzitarako, polizaren Baldintza Orokor eta Partikularretan ezarritakoa kontuan hartuko da. Aipatutako baldintzak hurrengo legeetan ezarritakoaren arabera araututa daude: Aseguruaren Kontratuari buruzko 50/1980 Legea, 6/2004 Errege Lege Dekretua, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzari buruzko Testu Bateratua onartzen duena, eta 2486/1998 Errege Dekretua, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskaritzaren Araudia dakarrena.

Laburpen honek aurrekoak ordezkaturiko ditu eta indarrean egongo da Kutxabank SArean eta Chubb Insurance Company of Europe SE konpainiaren arteko polizak irauten duen bitartean. **Kutxabankek Aseguruaren Hartzaile gisa diharduen poliza berri** ahal izango du, baina Konpainia Aseguratzailleari dagozkion betebeharrak ez ditu ez zuzenean ezta sorospidez ere bere gain hartuko.



TU MUNDO LEGAL